


**BIZITEGI ERAIKINA ETA STINUS GARAJEAK**  
C MAILA**GLORIA 3**

Egilea eta data: Luis Elizalde, 1932

**Deskribapena**

Goiko lau oinetan etxebizitza programa batez osatzen da. Garajeak sotoan daude, eta behe oina eta lehen oina Stinus karrozeriarentzat dira. Etxadi patioarekiko aurrez aurre dauden bi eraikin hartzen ditu. Eraikin horiek kale banarantz daude orientatuta, eta garajeen bidez elkarrekin komunikatuta. Goiko lau oinak etxebizitzetara zuzendu zituzten, hiru guneren inguruan antolatuta (bat Karkizanorantz eta bi Gloriarantz). Oin bakoitzeko lau etxebizitza daude. Sakonera txikikoak eta fatxada bakarrera ematen duten banaketak dira. Hasieran, Gloria kalearen aldean, banaketa modernoagoa eta ezohikoagoa planteatu zuten: erdiko korridore batetik eta eskailera bakarraren bidez, maila bakoitzean zortzi etxebizitzetarako sarbidea zegoen. 1931ko proiektu hori baztertu eta 1932ko deskribatutakoa eraiki zuten. Fatxadaren itxura argia eta garbia definitzen da, baliabide gutxiarekin eta dekoraziorik gabe. Bertan, fatxadaren luzapen gisa profil poligonalak duten eta etxebizitzaren egongelei dagozkien bi begiratoki nabarmentzen dira.

**Babes erregimena**

## 1.- Babes erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

## 2.- Berariazko babes erregimena:

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: ez.

B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: ez.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.

D.- Nahitaezko lehengoratzak:

- \* Behe oineko eta lehen goi oineko (edo bertan sar daitekeena) baoen konfigurazioa jatorrizko proiektuaren arabera. Jatorrizko proiektura egokitze hori ez da baoen arotzerian bete behar. Bertan jatorrizkoa ez den beste bat ipini ahal izango da, baina arotzeriari tratamendu eta soluzio global eta bateratua emanez. Gainera, ibilgailuak sartzeko egungo bao nagusia behera jota berriro dimentsionatzeko baimena emango da; baldin eta horren beharra eta zuzentasuna justifikatzen badira, fatxada horretako baoen baterako tratamenduaren barruan.

- \* Hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotutako gainerakoak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.